

ITSASU ITXASSOU

11

HERRI ALDIZKARIA **FEVRIER 2024 OTSAILA** BULLETIN MUNICIPAL



Urte berria abiatu du oldarrean : Balaki zaharrari agurrak, hartza zirtzilek harrotu dute, laborariak kexu gorrian atera dira bidetarat, eta badator korrika, auspotuz euskara, herri eta harro.

La nouvelle année a déjà pris de l'élan : adieu le vieux Balaki, les zirtzil de ihauteri ont réveillé l'ours, les paysans sont sortis sur les routes pour crier leur colère, et voilà la korrika qui arrive, nouveau souffle pour l'euskara, âme et fierté de notre pays.

ÉDITO

Auzapezaren hitza



Zenbait sei aste doi doia urte berrian sartuak girela eta jadanik iduritzen zaigu gibelean urrun ditugula, eguberriak, oporrak, eta urtatsak.

Urtarrileko zeruek kolore goibela zuten. Gerla bortitzak karraskaz han urrun. Miseria bestetan, itsasoak eta lurraldeak gaindi iheska beren herrialdeetarik, lehen gure herritako seme alabak joaten ziren bezala hirietarat edo Ameriketarat. Oraino urtarrilean, urpean Frantzia iparreko auzo osoak, klima aldaketaren ondorioz. Eta gure laborariak beren ezinbiziaren oihukatzen, kexuaren kexuaz eta etsiaren etsiaz.

Ez gira munduaren malurreri elkor egoiten ahal. Ez da bizkitartean neheri eskatzen munduko miseria guzia bizkarrean eramaitea, suminduraz, ezintasunaz eta beldurraz gainditua izateko arriskuarekin, aholkulari txarrenak baitira sendimendu horiek. Herritar bakoitxari gomendatu nahi ginioko injustizia guzietz haserretzea, eta segitzea elkartasunaren hazten beren etxeko atetik abiatuz.

2024 urtea oldar berriaren urtea izanen da Itsasun.

Aterbea zuten bi pilota leku altxatu ziren Itsasun 1953-1963ko hamarkadan, gure herria ez zela hain segur gutti harro bere gazten ausatzeko egina zen indar bereziaz. Erran behar eta, mutiko gazten fagoretan berezikiago ausaleku horiek biak, orduko neska eta anderek ez baitzuten esku handirik sartzen pilota jokoetan Itsasun.

Aldamiek eta xantierretako burdinezko gerizek inguratuko dute laster Balaki, eta zenbait hilabete luzeentzat.

Trinketeko kantxa azalberrituko da, eta mutikoak bezala neskak aritzen ahalko dira pilota jokoetan. Trinketa luzatuko duen ezkalada gelarat hurbilduko dira helduak eta herri ala auzo herriko eskoletako haurrak. Itsasuar multzo bat ari da jo ta ke Balakide gelaren erabilpenak pentsatzen, belaunaldi guzien elkargune hori biziartzeko. Ostatu gela eta bere terraza ezinago ongi kokatuak dira herri erdiko karrikari bizi berri baten eskaintzeko.

Herri batek nahi duelarik bere herritarren bizi kalitatea lehenetsi, baitezpadakoa du bilgune eta animazioneen antolatzen laguntzea, sustengatuz elkarte sarearen inizatiba guziak.

Itsasuar guzietz, 2024 urtea baikortasunaren eta bihotz zabalaren kolorekoa.

Mizel HIRIBARREN

Itsasuko auzapeza

Quelques six semaines à peine que nous sommes entrés dans la nouvelle année et le sentiment que Noël, les vacances et le nouvel an sont bien loin derrière nous.

Le ciel de janvier avait déjà une drôle de couleur. La guerre était toujours de cruelle actualité là bas. La misère de certains pays continuait de forcer à l'exil comme avant -hier les jeunes s'en allaient de nos contrées vers les villes ou les Amériques. Là haut le dérèglement climatique maintenait des quartiers entiers sous l'eau. Ici même, nos paysans criaient leur mal vivre, leur colère et leur désespoir...

Nous ne pouvons pas rester sourds aux malheurs du monde. Pas question pour autant de vouloir porter sur nos frères épaules tout le poids du monde, au risque de finir par nous laisser envahir par les sentiments de rancœur, d'impuissance ou de peur, trop mauvaises conseillères. Nous souhaitons à chacun de continuer à s'indigner de l'injustice ou qu'elle soit, et de continuer à nourrir la solidarité depuis chez nous.

L'année 2024 sera à Itxassou l'année du nouvel élan.

Dans la décennie de 1953-1963, la construction des deux frontons couverts d'Atharri et Balaki avaient fait la fierté d'un village qui se donnait les moyens de se préoccuper de sa jeunesse. Plus particulièrement de l'animation des jeunes hommes d'ailleurs, puisque les jeunes filles ne pratiquaient guère la pelote à Itxassou.

Les grilles de chantier encercleront très bientôt le Balaki, et pour de longs mois.

La cancha du trinquet fera peau neuve, et permettra aussi bien une pratique de la pelote par les filles que par les garçons. La salle d'escalade qui sera érigée sur le prolongement du trinquet accueillera les adultes et les enfants de la commune et des collèges alentour. Un groupe d'itsasuar travaille à penser une diversité d'animations pour la salle multi activités. Le bar et sa terrasse sont idéalement placés pour redonner vie à cette entrée du centre bourg.

Une commune qui cultive la qualité de vie de ses habitants ne peut que favoriser les lieux d'animations et de rencontres, tout en valorisant les nombreuses initiatives de son tissu associatif.

A tous les itsasuar, une année 2024 aux couleurs de l'optimisme et de la générosité.

Mizel HIRIBARREN

Maire d'Itxassou



Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Itsassou

05 59 29 75 36 - Email : accueil@itxassou.fr - Site : www.itxassou.fr

Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea

Impression sur papier recyclé : Imprimerie Mendiboure - Arizmendi

AURKIBIDEA / SOMMAIRE

Editoriala / Édito

BERRIAK / ACTUALITÉS

BALAKI : lau gune Balaki berrian / quatre espaces feront le Balaki berri	4
Arroka escalade : gora eta gora / la voie qui améliore la confiance en soi et en l'autre	5
BALAKIDE : adin guziei idekia den trukaketa etxea / un lieu propice aux échanges	5
BALAKI : gosta sariak agerian eta diru laguntzak baieztatzekoak / des charges définies et des subventions à confirmer	6
BALAKI : lau urte bete beteak obrak hasi aintzin / quatre années sans entrave ni répit avant de commencer les travaux	7
HERRIKO ETXEA : publikoaren harrera elkarten gelan / accueil au public transféré salle des associations	8
CAT NAT : itsasuarrek merezi ginuen ikustate gehiago / les itsasuar méritent davantage de reconnaissance	9
Jende kondaketaren emaitzak geroago / recensement 2024 : trop tôt pour les résultats	10
Energia aurrezteko politika herrian / politique d'économies d'énergie dans la commune	11
Demokrazia parte hartzailea hitzetarik obretarat / la démocratie participative à l'œuvre	12
OPAH: berritze obrak behar dituzten bizitegiak / pour les logements qui ont besoin de travaux	12
Bihotzekoak artatzeko desfibrilagailuak / défibrillateurs pour répondre aux urgences	13
Beren lanetik bizi nahi dute laborariek / les paysans veulent pouvoir vivre de leur travail	14
Kalte larriak kabaletan MHE gaitz berriarekin / nouvelle maladie MHE qui fait des dégâts dans les élevages	15
Uraren kontagailu berdeak etxaldentzat / compteur d'eau vert pour les champs	16
Itsasuko gerezia : aho batez lehen baimena sormarkarentzat	16
Cerise d'Itxassou : un premier avis favorable pour l'appellation d'origine	16
Erlezaintza ikasten / pour apprendre l'apiculture	17
Listor asiaticoa jo ta ke / la guerre aux frelons asiatiques	17
Herrien lehertzaile baino gehiago bateratzaile Elkargoa / une agglomération fédératrice et non pas prédatrice	18
Nola egin bereizketa / les consignes de tri	19
Konpostagailuak denentzat dohainik / le compostage gratuit pour tous	19
Oihalkiek bigarren bizi bat merezi dute / les textiles usagés méritent une seconde vie	20
Ur zikinen kontrola kanpana / campagne contrôle des stations d'assainissement individuel	21

HEZKUNTZA / EDUCATION

ESKOLA PUBLIKOA birziklatze tailerrak eta zirko jokoetan trebatzea / ateliers recyclage et découverte des jeux du cirque	22
IKASTOLA oiloarekin zenbat gauza ikasteko / une poule peut permettre de découvrir tant de choses	23
SAN JOSEP ikasleak eskolako biziaren hobetzeaz arduradun / des élèves responsables de l'amélioration de la vie de l'école	24

SOZIALA / SOCIAL

Eskolaz kanpoko proiektua abiatzen da / le projet d'animation périscolaire pour très bientôt	25
EGUBERRIKO IKUSGARRIA : gora gora igo eta ilargiari ihes egiten utzi/ prendre de la hauteur et laisser échapper la lune	26
Eguberriak adinetakoentzat/ Noël pour les aînés	27
Olentzero eskolatan/ Olentzero sur les écoles	28
Gazteak lagundu jendartean kokatzen/ la mission locale Pays Basque	
Korrika Itsasun martxoaren 14-an : gure herriaz harro / Korrika le 14 mars à Itxassou	29

ELKARTE BIZIA / VIE ASSOCIATIVE

Elkarteen aurkezpenak / la parole aux associations	30-33
--	-------

EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL

Agur eta milesker Jean Pierre Lanquet jaun medikuari/ Ez adiorik Jean Pierre Lanquet	34
2023ko egoera zibila/ etat civil 2023	34

OPOSIZIOA / OPPOSITION

ELGARREKIN SEGI AINTZINA/ expression de l'opposition municipale	35
---	----

EGUTEGIA / AGENDA

Egutegia/ au programme !	35
--------------------------	----

TÉMOIGNAGE (MARINA BEHERETCHE)

MARINA BEHERETCHE Sinetsi dut ene ametsari / J'ai cru à mon rêve	36
--	----



INTRAMUROS

Pensez à télécharger sur votre téléphone l'application INTRAMUROS sans oublier d'activer les notifications. Les nouvelles et événements d'Itxassou peuvent vous parvenir à toute heure. <https://appli-intramuros.fr/>

Telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean. Herriko berri eta gertakari guzien jakinean izanen zira orenez oren.

Balaki : Lau gune Balaki berrian Quatre espaces feront le Balaki berri



Insertion Balaki berri

Itzasuko herriak Balaki trinketeko obrak hasteko bezperan, balio du hain segur obra horien aipamen bat egitea sailez sail: trinketaren zahar berritzea, ezkalada gela baten altxatzea, erabilpen ezberdinetako gela baten eraikitzea, eta ostatu gunearen zabaltzea.

Balakiko Lagunek trinketa idekiz geroztik, herriko pilota elkarteak berriz erabili ahal izan zuen bere trebatze eta lehiaketa ekitaldietarako. Trinketa gozatu dute baitaere astez aste kirola moduan ala joko moduan baliatu nahi zuten pilotari guziek.

Obrak 2024ko martxoan hasiko dira, hamabost bat hilabetez irauteko. Kantxa bera eta Balaki trinketa guzia zahar berritua ikusiko da.

Hegatzeko zimenta fibra amiantatu plaka guziak ordezkatuak izanen dira iguzki panelak jasan beharko dituen metalezko eztalki izolatu batez. Kantxa zola berri berririk egina izanen da, pilotarentzat abiadura handiegia izanen ez delako menturan.

Eta gibleko taula kentzeko modukoa izanen da, bereziki andereek askotan egiten duten pilota hutseko jokoan aritzeko gisan, Azken urte hautan Itsasuarrak elkarteak alokatzen zituen beste herrietako trinketak pilota hutseko jokoan trebatzeko.

Trinketaren iparralderako sahetsean kokatuko dira gibleko taularen aterbea, eskuen berotzeko gela ttipi bat eta ezkaladarekin banatuko diren aldagelak.

Balakiko obrek behartuko dituzte pilota elkarte eta gainerateko pilotari amatur guziak auzo herrietako trinketen alokatzerat. Iduriz, gehienek gogo onez onartzen dute indar horren egitea, lehen bait lehen beren pilota leku berri berrirat itzuliko direlako menturan.

A la veille du début des travaux que la commune engage sur le trinquet Balaki, il peut paraître utile de faire un point sur la nature de ces travaux secteur par secteur : la réhabilitation du trinquet, la construction d'une salle d'escalade, la création d'une salle multi-activités, et la réouverture de l'espace bar petite restauration.

Depuis la réouverture du Balaki par Balakiko Lagunak, le club de pelote avait pu reprendre les activités régulières sur le trinquet d'Itxassou. Celui-ci bénéficiait également à nouveau de l'activité des équipes d'amateurs et d'amatrices qui réservaient les créneaux disponibles en journée ou en soirée.

Les travaux vont commencer en mars 2024, pour durer une quinzaine de mois. Le trinquet historique sera rafraîchi et se verra repartir pour une autre cinquantaine d'années.

La toiture en fibro ciment amiantée sera remplacée par une couverture métallique isolée qui supportera les panneaux solaires. Le sol de la cancha sera refait à l'identique avec l'ambition d'éviter un sol trop rapide. Et le tambour arrière sera amovible pour permettre le jeu de baline que pratiquent souvent les filles.

Les travaux du Balaki obligeront Itsasuarrak pelote et les amateurs à louer des créneaux d'occupation sur les trinquets des communes alentours. Tous paraissent consentir volontiers à cet effort avec l'illusion de récupérer au plus vite leur cancha flambant neuve.



1ère réunion de chantier Balaki en mairie

Arroka eskalade : la voie qui améliore la confiance en soi et en l'autre

Gora eta Gora


Ezkaladak haizeak alde ditu. Eta Euskal Herriko lurraldeak ez du ezkalada gela aintzik eskaintzeko.

Bi ezkalada paretara klase badira geletan: Bloka eta xendera. Bloka bakarka egiten den ezkalada moldea da, goratasun handirik gabe, bost metrataraino. Xendera aldiz bi lagunetan egiten da beti, batak bestea bermatzen dutela, eta nahi den bezain gora joan liteke.

Itsasuko ezkalada gelak xendera moldea hautatu du, soka jokoen bidez, behartzen baitu norberaren eta bestearen konfiantza. Gainera sokak erabiltzen dituzten beste kirola batzuei bidea idekitzen du.

Alpinismoa, kanyonina, ezkia ibiltaria edo ezpeleologia bezala, ezkaladatzailak beti soke lotuak izan behar dira eta lagunek lurretik bermatzen dute soka. Gure mendi arroketa egiten den moduko ezkalada kirola izanen da Balakikoa

Balakiko gelak 30 jende ohatuko ditu, 11,50 metra dituelarik gorenean, eta 24 soka xendera eskainiko dituelarik, batzuek zutak eta besteak aintzinerat edo gibelerateko ixuriarekin. Gisa hortan publiko zabalari idekia izaten ahalko da: eskoletako ikasleak, ezkalada afizionatuak, ikuska dabiltzanak bezala.



Insertion voies

Les activités d'escalade ont le vent en poupe. Et le territoire du Pays Basque est peu pourvu de salles équipées qui permettent cette pratique sportive. Il y a deux disciplines : le bloc ou la voie (dit aussi escalade de difficulté). Le bloc est une escalade se pratiquant seul sur une faible hauteur, jusqu'à 5m. La voie se pratique à deux (assureur et assuré) sans limite de hauteur.

La salle d'escalade du Balaki a choisi d'opter pour de la grimpe sur voies, car par les manipulations de cordes, cette discipline améliore la confiance en soi et en l'autre et permet d'accéder à d'autres sports utilisant la corde. Comme l'alpinisme, le canyoning, le ski de randonnée, la spéléologie, ... Les pratiquants seront toujours sécurisés par des cordes et des partenaires qui assurent depuis le sol. Le même principe que l'escalade que l'on peut pratiquer sur les falaises de nos montagnes. La salle, d'une capacité de 30 personnes, aura une hauteur maximale de 11,5m, et sera équipée de 24 relais, avec des parties verticales et des parties en dévers, pour accueillir un large public (scolaires, grimpeurs, curieux).

Balakide : Adin guzietan idekia den trukaketa gunea

un lieu propice aux échanges entre habitants de tous âges

Balakide gela eraikia izanen da trinketaren hegoaldean, 92 m2ko eremua hartuko duela. Sargia berdina izanen da ostatu gunearekin eta kantxarekin. Idekidura zabalak izanen dira kanpoko alderat, mendietan buruzko bistarekin. Gerorako, behar orduen arabera, gela bi zatitan banatzeko moldea ikusia da.

Gela hortan antolatutako izanen diren aktibitateak itsasuar talde baten gogoeta kolektiboaren gaia dira. Enpresa eta merkatu helburuetariko urrun, zozial animaziotariko hurbilago, gogoeta talde horren lana interes orokorrekoa da.

Balakide multzoa idekia gelditzen da geroaldian tailer bat edo gehiago proposatu nahi duen edonori (joste, xorroste, berziklatze...), noizean behin edo jarraituki, adin guzietan idekia den trukaketa etxe hortan.

La salle multi activités qui sera construite sur la façade sud du trinquet Balaki offrira une surface couverte de 92m2. L'entrée sera commune avec l'espace bar et trinquet. De généreuses ouvertures permettront l'accès sur l'espace vert extérieur et la vue sur le grand paysage et la montagne. Il est prévu de pouvoir installer ultérieurement une cloison amovible pour pouvoir moduler l'espace en deux locaux, si les usages permettent de mieux valoriser le lieu.

Les activités qui pourraient être réalisées sur ces locaux font l'objet d'une réflexion collective portée par un groupe d'itsasuar bénévoles. Loin des logiques d'entreprises, beaucoup plus proches des dynamiques d'animation sociale, les travaux de ce groupe de réflexion sont à classer dans des actions d'intérêt général.

Le groupe Balakide est ouvert à toute personne qui voudrait proposer à l'avenir un ou des ateliers (couture, affûtage, recyclage..) ponctuellement ou régulièrement dans ce lieu qui se voudrait propice aux échanges entre habitants de tous âges.

Gosta sariak agerian eta diru laguntzak baieztatzeak Des charges définies et des subventions à confirmer

Maitre d'Ouvrage : COMMUNE DE ITXASSOU

Trinquet BALAKI

Réhabilitation et extension du trinquet

Janvier 2024

RECAPITULATIF DU MONTANT DES TRAVAUX

Désignation des Lots	Estimation H.T	Montant BASE	OPTIONS	TOTAL	Entreprises	Ecart
1 - Désamiantage	35 000.00 €	54 679.00 €	2 685.00 €	57 364.00 C	DI ENVIRONNEMENT	56.23%
2 - Déconstruction - Gros-œuvre	585 000.00 €	480 000.00 €	26 328.85 €	506 328.85 C	OYHAMBURU	-17.95%
3 - Charpente métallique - Couverture - Bardage - Zinguerie	242 000.00 €	163 500.00 €	6 500.00 €	170 000.00 C	GEROARI	-32.44%
4 - Charpente bois - Couverture - Zinguerie	110 000.00 €	97 617.50 €	4 920.00 €	102 537.50 C	LAUAK BAT	-11.26%
5 - Menuiserie Aluminium	75 000.00 €	112 000.00 €	- €	112 000.00 C	LABASTERE	49.33%
6 - Menuiserie intérieure	23 000.00 €	25 824.00 €	- €	25 824.00 C	ABILAN	12.28%
7 - Plâtrerie - Isolation - Faux-plafonds	85 000.00 €	101 357.91 €	- €	101 357.91 C	CANGRAND	19.24%
8 - Carrelage - Faïences	50 000.00 €	49 738.17 €	- €	49 738.17 C	ARIBIT BAUDRY	-0.52%
9 - Peinture	110 000.00 €	122 258.19 €	5 346.52 €	127 604.71 C	CARRAU	11.14%
10 - CVPS Chauffage Ventilation Plomberie Sanitaire	85 000.00 €	90 009.25 €	4 499.04 €	85 510.21 C	LOGIS CONFORT	5.89%
11 - Electricité	82 000.00 €	74 224.94 €	- €	74 224.94 C	CSJ	-9.48%
12 - VRD	89 000.00 €	70 330.00 €	1 494.00 €	71 824.00 C	AGUERRE	-20.98%
13 - Tambours intérieurs	15 000.00 €	20 000.00 €	- €	20 000.00 C	ATOUT FER	33.33%
14 - Filets de protection trinquet	12 000.00 €	11 986.38 €	- €	11 986.38 C	ALTELA	-0.11%
MONTANT TOTAL DES TRAVAUX H.T "BASE"	1 598 000.00 €	1 473 525.34 €	42 775.33 €	1 516 300.67 C		-5.11%
T.V.A. 20%	319 600.00 €	294 705.07 €	8 555.07 €	303 260.13 €		
MONTANT TOTAL DES TRAVAUX T.T.C. "BASE"	1 917 600.00 €	1 768 230.41 €	51 330.40 €	1 819 560.80 C		

Obra sail gehienentzat bazen hautagai bat baino gehiagoren aintzinkondua, eta Hemen-TSA obra kudeatzaileak lagundurik, hautetsi batzorde batek egin ditu hautaketak.

Enpresen oinarriko proposamenari gehitu zaion opzio nagusia izan da kantzua zolaren osoki berritzea (20 393€ bigarren obra sailean).

Taulan agertzen diren gastuei gehitzen dira estudio eta obra kudeatzailearen gosta sariak.



Eskatuak izan diren diru laguntzen aldetik, obra gastuen %50 gaitutako lukete eskatu bezala onartuak balire. Departamenduak (145 320€) eta Hiri Elkargoak (149 700€) finkatua dute zenbat emanen duten. Ondoko asteetan baizik ez da jakinen Su Prefeturatik Estatuak nolako DETR laguntza eskainiko duen, eta Akitania Eskualdetik ala Europako Funtsetarik zenbat ixuria izanen den Balaki obrarentzat.

Plusieurs candidats étaient en concurrence sur la plupart des lots, et les choix ont été arbitrés avec le maître d'œuvre par une commission d'élus.

La principale option concerne la réfection à neuf du sol de la cancha (20 393€ pour le lot 2).

Aux montants des travaux détaillés dans le tableau ci-dessus viennent s'ajouter les coûts des études et des honoraires, dont la maîtrise d'œuvre qui pilote la réalisation des travaux.

Quant aux montants de subvention sollicités, ils représentent à ce jour plus de 50% du montant des travaux. Ils sont clairement annoncés pour les sommes accordées par le département (145 320€) et la CAPB (149 700€). Ils ne seront annoncés que dans les prochaines semaines pour la DETR que versera l'état ou les sommes que verseront le conseil régional ou le FEDER du Fonds Européen.



Balaki : lau urte bete beteak obrak hasi aintzin // Quatre années sans entrave ni répit avant de commencer les travaux

Zenbait egun Balaki zaharra obra burdinez inguratua ikusi aintzin, Herriko hautetsiek bilkura publikoa antolatua zuten Sanokin, otsailaren 3ko larunbat goizean, Balaki berriaren proiektuaren aurkezteko.

Balakiko Lagunak elkartearantz, Piarres Ducassou-k aipatu zituen dotzena bat itsasuarren motibapen eta ekintzak 2019 urtean trinketeko giltzak eskuratzeko, besteak beste herriko pilota klubaren gozamererako.

Hautetsiek hitza hartu zuten lau urtetako ibilbide luzearen bildumatxoa egiteko.

2020ko uda erditarik hamalau hilabete behar izan ziren Balaki ontasunaren jabetza negoziatzeko eta herriaren esku ezartzeko. 2021eko urtean galdeketa bat igorria izan zen herritar guzietatik jakiteko nolako emendakinak nahi ziren Balakin, eta ondotik kontzertazio bat antolatua izan zen proposamen horietan hautatzeko. 2022 urte guziaz ez zen sobera izan plan zehatzen mugatzeko eta arxitekta konsulta antolatzeke, Itsasun jarria den HEMENek eramanen zuena. 2023an bururatu zen aintzinkonduen araberako Balaki proiektua, eta eraikitzeke baimenaren dozierra 2023ko apirilaren aurkeztu zen. 2024an ginen obra horien egiteko enpresen konsulta bururatu zelarik.

Sanokiko bilkura publikoak segitu zuen Mickael Etchegaray arxitektaren aurkezpenarekin : trinketa zaharberria eta herriarteko norme egokituak pilota hutsean aritzeko moldearekin. Trinketaren itzulian eraikiko diren aterbe berriek, erdi gorde behar lukete eraikin zaharraren goratasun harroa.

Ramuntxo St Pierre TSAkoak agertu zuen nola enpresen lanak gostako diren miliun bat eta erdi euro, TVA zergatik aparte.

Itsasuarrak elkartearantz Xan Parachu mintzatu zen adieraziz gorriak ikusi zituztela pilota klubakoek trinketa hetsia egon zen denboran, beste herrietan atxeman beharrez gostaia gosta pilota lekuak. Jakinarazi zuen berantetsiko zaiela Balaki berriko trinketa, baina prest direla bitartean beste herritan ibiltzeko.

Dioni Aguerre eta Ximun Zubietak landua zuten ezkalada gelaren aurkezpen didaktikoa : 24 ibilbide trinketaren gibelego gelan, batzuek errexagoak trebatzen ari

direnentzat eta besteak zutagoak kirola hortan afizioz ari direnentzat.

Balakide proiektua Elise eta Jenofak agertu zuten, aipatuz gogoeta kolektiboa aintzina doala borondatez hurbiltzen den herritar talde txoarekin. Baliatu dira Sanokin elkartuak ziren jendeek galdeketa berri baten zabalteke.



Réunion publique 03/02/2024

A quelques jours des premiers échafaudages et grilles de chantiers autour du vieux trinquet Balaki, les élus de la commune d'Ixassou ont organisé en matinée du samedi 3 février 2024 une réunion publique à Sanoki pour présenter le projet du Balaki berri.

Pour l'association Balakiko Lagunak, Piarres Ducassou a témoigné de la motivation d'une douzaine de jeunes itsasuar qui parvenaient en 2019 à se faire confier les clefs du trinquet, à la grande satisfaction des joueurs amateurs et du club de pelote itsasuarrak.

Les élus sont revenus rapidement sur les quatre années bien remplies qu'il aura fallu pour arriver à la veille des travaux.

A partir de l'été 2020, une bonne année a été nécessaire à la négociation et l'acquisition du bien par la commune. Sur l'année 2021, une enquête a été diffusée à tous les habitants pour recueillir les souhaits d'équipements complémentaires et une concertation a été organisée pour définir les projets retenus. L'année 2022 a à peine suffi à préciser les plans et à organiser le concours d'architecte qui a retenu le cabinet HEMEN installé sur la commune.

Le projet d'extension réhabilitation de l'architecte a finalement été stabilisé en surfaces et en coûts en début 2023 par la commission adhoc, et la demande de permis de construire a pu être déposée en avril 2023. Nous étions déjà en 2024 quand la consultation des entreprises parvenait à son terme.

L'architecte Mickael Etchegaray du cabinet Hemen a présenté le fruit de toute cette réflexion collective : un trinquet qui fera peau neuve et qui, avec un tambour arrière amovible sera également adapté aux jeux de baline que pratiquent les féminines ; des volumes de constructions tout autour du trinquet qui viendront habiller les parois verticales de l'édifice historique.

Ramuntxo St Pierre du cabinet d'économie TSA a rapidement énoncé les sommes engagées sur le projet : un million et demi d'euros pour financer le travail des entreprises.

Les principales associations mobilisées sur le Balaki Berri ont présenté ensuite leurs activités et leurs ambitions.

Xan Parachu pour Itsasuarrak pelote a évoqué les années de fermeture administrative du trinquet qui ont été compliquées pour les activités du club de pelote et exprimé tous les espoirs qui sont mis dans ce projet de réhabilitation du Balaki pour conforter la bonne dynamique actuelle de la pelote à Ixassou.

Dioni Aguerre et Ximun Zubietak avaient préparé une présentation didactique du projet de salle d'escalade qui va occuper l'arrière du Balaki : 24 voies de grimpe avec des murs d'apprentissage et des parties pour sportifs plus aguerris avec des dévers qui donnent déjà le vertige à les regarder à l'écran.

Le projet Balakide sur la salle multiactivités était porté par Elise et Jenofa qui ont fait part des réflexions collectives qu'elles animent pour définir ce que contiendra ce lieu de vie sociale intergénérationnelle. Elles ont profité du public réuni à Sanoki pour diffuser un questionnaire destiné aux habitants.

ENQUETE

Merci de prendre le temps de répondre au questionnaire de Balakide inséré dans ce numéro et de nous le retourner en mairie.

Herriko etxeko obrak : publikoaren harrera elkarten gelan / Accueil au public transféré à la salle des associations derrière la mairie

Ustegabean gertatzen ari da, memento berean hasiko dira Herriko Etxeko obrak eta Balakikoak.

Legezkoa da publikoa onartzen duten gelak helgarriak izatea, 2015 agorrilaren 5eko deliberoak, agertzen baitu : »... Publikoa onartzen duten gela guzietan jende guzietan hartzeko gisakoak izan behar dute, baita elbarrituak diren jendei.... »

Lehen obra sail bat egonik izan zen Itsasuko herriko etxean 2019an, harreraren sartzeko atea automatikoa ezarri zelarik, bera bakarrik idekitzen dela jendea hurbiltzean.

2024ko heldugarritasun obrek igogailu baten ezartzea dute helburu lehen solairuko geletarat heltzeko : eztei gela edo kontseiluko gelarat, liburutegiko gelarat bezala.

Heldugarritasun obra horien estakuruan, herriko etxeko harrera gunea eta beste bulego batzuek izan diren aldaturik, lekua ahal den hobekienik baliatzeko eta bulego zenbait soinu aldetik hobeki egokitzeko.

2024ko otsailaren azkenetik uda arte, Itsasuko herriko etxeko harrera elkarten gelan egiten da, sargia herriko etxe gibelean duelarik. Elkarte gelaren ohizko erabiltzailei aldiz proposatuko zaie herriko haurtzaindegia baliatzea beren bilkurentzat.

Le hasard du calendrier va faire coïncider le début des travaux sur mairie et sur trinquet Balaki, précisément en ce début 2024.

La mise en accessibilité des établissements ouverts au public est une obligation légale régie par la loi du 5 août 2015 qui stipule que « ...tout établissement recevant du public (ERP) doit être accessible à tous, y compris aux personnes en situation d'handicap... »

Une première tranche de travaux avait été réalisée en 2019 sur la mairie, avec l'automatisation de la porte d'entrée, qui s'ouvre dès qu'un administré s'en approche.

Le projet d'aménagement accessibilité 2024 consiste à installer un ascenseur qui permettra d'accéder aux salles de l'étage : salle des mariages et du conseil municipal, locaux de la bibliothèque.

Sur le prétexte de ces travaux d'accessibilité, l'accueil et plusieurs bureaux du rez de chaussée seront aussi reconfigurés, avec un objectif d'optimisation de l'espace et pour assurer davantage de confidentialité.

De fin février à l'été 2024, l'espace accueil de la mairie d'Ixassou sera transféré à la salle des associations dont l'entrée se trouve derrière le bâtiment principal de la mairie. Quant aux utilisateurs réguliers de la salle des associations, il leur sera proposé de se réunir en salle de la garderie municipale, dans le quartier des écoles.

Mise en accessibilité et aménagement des locaux de la Mairie
Dépenses prévues et subventions sollicitées

Désignation	Montant HT des prestations de base	Montant HT des PS et PC proposées par les entreprises et par le maître d'œuvre		Montant TOTAL HT Base + PS + PC
		Offre	Observation	
TRAVAUX				
Lot 01 Gros œuvre	33 985.00 €	1 760.00 €	Conduit ascenseur	35 745.00 €
Lot 02 Menuiserie bois	19 454.00 €			19 454.00 €
Lot 03 Plâtrerie	11 321.82 €			11 321.82 €
Lot 04 Electricité	20 080.65 €			20 080.65 €
Lot 05 CVPS	8 880.00 €	2 880.00 €	caisson VMC à remplacer	11 760.00 €
Lot 06 Chape -carrelage - faïence	7 295.60 €			7 295.60 €
Lot 07 Peinture	17 450.48 €			17 450.48 €
Lot 08 Ascenseur	21 150.00 €			21 150.00 €
Montant total des travaux	139 617.55 €			144 257.55 €
TOTAL HT	139 617.55 €			144 257.55 €
TVA 20.00%	27 923.51 €			28 851.51 €
TOTAL TTC	167 541.06 €			173 109.06 €
AUTRES FRAIS				
Honoraires maîtrise d'œuvre	18 032.19			18 032.19
Etude préalable et honoraires divers (diag structure, sol, amiante, SPS, CT, CSSI, fluides)	10 980.00			10 980.00
TOTAL HT	29 012.19 €			29 012.19 €
TVA 20.00%	5 802.44 €			5 802.44 €
TOTAL TTC	34 814.63 €			34 814.63 €

AIDES PUBLIQUES SOLLICITÉES :	98 000.00
DETR 2024	40 000.00
Conseil Départemental	50 000.00
Fonds de concours CAPB	8 000.00

Itsasuarrek merezi ginuen ikustate gehiago Les itsasuar nous méritons bien plus de reconnaissance

Gure herrian, 2023ko ekainaren 20an lehertu zen harri erauntsiak makur frango eragin zuen etxaldetan eta ontasun pribatuetan.

Axurantzek askotan makurraren parte bat ona ordaindu dute, axuratuak ziren ontasunentzat, eta merkatuan hein bat balio atxikia bazuten ontasun horiek. Ordaintzerik batere ez edo gutiegi aldiz merkatuan balioa galdua zuten ontasunentzat.

Itsasuko herria gehienik zafratua izan zen dudarik gabe, delako harri erauntsi bortitz haren gatik. Ez du ordea sekulan ardietsi hondamendi natural ezagupenik, behin eta berriz eskatua izanik ere. Administrazioarearen deliberoa onartezina gelditzen da !

Jakina, ez da berez hondamendi natural ezagupenik harri erauntsientzat. Uholde edo lohi litatzeak dira bakarrik kondutan hartuak izaten ahal ezagupenaren eskuratzeko. Eta auzo herriek bezala molde hortan betea ginuen Itsasurentzat dozierra.

Meteo Francen emaitzak dira erabiltzen usaiaz kanpoko gertakari bezala agertzeko, hondamendi natural onartua izateko.

Aro ikerle bulegoko adituak hauxe zion bere txostenean: " azken hamar urtetako gertakariak kondutan hartuz, 2023ko ekainaren 20an, 15 orenak eta 16 orenak artean, oren batez Itsasuko herrian erori den euri kantitatea ez da usaiaz kanpoko" (37mm kondatu ziren, usaiaz kanpoko izateko beharko zirelarik 39mm)

Herriak lehen ezezko deliberoaren errekurtsoa helarazia zuen CAT NAT ardura berezia duen ministeritzarat. Nahiz gure lurraldeko administrazioe ordezkariek ezagupenaren alde lagundu, errekurtsoak ez du ezezko deliberoak aldatu.

Jasangaitza da egoera. Ezagupen ofizialak ez zuen menturaz ordaintze ondorio handirik ekarriko, aldiz harri erauntsiak bortizki jo zituen hainbat herritarrentzat mespretxua iduri du ezagupenaren ukapenak.

La tempête de grêle que notre commune a subie le 20 juin 2023 avait causé de lourdes pertes économiques sur de nombreuses fermes et sur beaucoup de biens privés.

Les assurances ont souvent permis d'amortir les dommages pour les voitures par exemple, dès lors qu'elles avaient encore une certaine valeur sur le marché. Rien ou si peu de dédommagements pour les véhicules peu cotés sur le marché, pas encore de nouvelles de la prise en charge des pertes agricoles qui dépendent du régime des calamités agricoles.

Notre commune avait certainement été la plus impactée du secteur lors de cet événement climatique exceptionnel de juin 2023. Elle n'a pourtant pas bénéficié de la reconnaissance en catastrophe naturelle. La décision administrative reste inacceptable.

Il n'y a pas de reconnaissance catastrophe naturelle (CAT NAT) pour les épisodes de grêle. Ce sont « les inondations par ruissellement et coulées de boues associées » qui seules dans notre situation pouvaient permettre d'être reconnus CAT NAT. Et le dossier avait donc été constitué en ce sens.

Ce sont les relevés de Météo France qui servent à définir l'épisode exceptionnel.

L'avis de l'expert chargé de mission en climatologie rapportait ceci : « avec une durée de retour inférieure à 10 ans, l'épisode pluvieux qui s'est produit en 1 heure sur la commune de Itxassou le 20/06/2023 de 15h à 16h légales, ne présente pas une intensité anormale » (37mm enregistrés pour un quantile décennal de 39mm)

La commune avait déposé un recours auprès de l'administration ministérielle qui décide des reconnaissances CAT NAT. Malgré le soutien de l'administration territoriale qui a témoigné en la faveur de cette reconnaissance, le recours n'a pas abouti.

Le constat est amer. La reconnaissance n'aurait sans doute pas eu de conséquences économiques majeures sur les niveaux d'indemnisation, mais elle aurait révélé une considération à l'égard de tous les habitants impactés par la violence du phénomène climatique de ce 20 juin 2023.



Grêle du 20/06/2023



Culture de piments dévasté par les intempéries du 20/06/2023

Info de dernière heure

Calamités agricoles : indemnisations pour productions de piment d'Espelette et pommes

Le Ministère de l'Agriculture et de la Souveraineté alimentaire a reconnu, par arrêté ministériel du 22 décembre 2023, des pertes de récolte consécutives aux orages (grêle et pluie) des 20 et 21 juin 2023 et ouvrant droit à l'indemnisation fondée sur la solidarité nationale.

Communes concernées : Ainhoa, Cambo-Les-Bains, Espelette, Itxassou, Jaxu, Larressore, Mendionde, Souraïde.

Dépôt des dossiers prévu à partir de la mi février 2024 (les agriculteurs seront avisés par mail depuis la mairie).

Jende kondaketaren emaitzak geroago Recensement 2024 : trop tôt pour les résultats

Lerro hauek idaztean, Itsasuko Herriko Etxeak itxi berri ditu azken hilabeteetan INSEEren babesean egin diren populazioaren kondaketa operazioak, eta eskerrak eman nahi ditu:

- Itsasuarrei beren parte hartze baliosagatik eta etxetan ibili direnei egin harreragatik;
- 5 agenteei: Chantal, Martta, Rose-Marie, Silvia eta Axel, beren misioan dinamismo, zorroztasun eta iraunkortasun handiz inplikatu direnak;
- INSEEi, azken hilabeteetan ezarri den partaidetza hertsia erantzutuz, emaitzaren kalitatearen bermea.

Behin betiko emaitzak ez dira jakinen INSEEk aztertu eta baliozkotu arte.

Legezko populazioaren kalkulua, populazio erroldaren lehen helburua.

10 000 biztanle baino gutxiago dituzten herriak bost urtetarik behin xeheki zerrendatuak dira txandaka. Populazio erroldaren inkesta horretatik, urtero, Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dekretu baten bidez zehazten dira, biztanleria eta bizitegiak deskribatzen dituzten estatistikak egiteko balio duten legezko populazio kopuruak.



Chantal



Axel



Sylvia



Martta



Rose Marie

Au moment où paraît le bulletin, la mairie d'Ixassou vient de clôturer les opérations de recensement de la population menées depuis un mois sous l'égide de l'INSEE et souhaite remercier :

- les Itsasuar pour leur précieuse participation et pour l'accueil réservé aux agents recenseurs ;
- les 5 agents : Chantal, Martta, Rose-Marie, Silvia et Axel qui se sont impliqués avec beaucoup de dynamisme, de rigueur et de persévérance dans leur mission ;
- l'INSEE pour le partenariat étroit établi depuis quelques mois, gage de la qualité des résultats produits.

Les résultats définitifs ne seront connus qu'après analyse et validation par l'INSEE.

Le calcul de la population légale, le premier objectif du recensement de la population.

Les communes de moins de 10 000 habitants sont recensées exhaustivement tous les cinq ans par roulement. De cette enquête du recensement de la population, est déterminée chaque année par décret publié au Journal Officiel, la population légale servant à

Emaitzak lortzeko kalkuluak

2024 inkesta horren emaitzak, zinez zehatzak, ez dira Itsasuko populazioa zehazteko erabiliak izanen 2024an, baizik eta kalkulu gisa baliatuak izanen dira hurrengo urteetako populazioa finkatzeko. Beti izaten da desfase bat ikerketa baten emaitza sakonen eta legezko populazio kondatuen artean.

Populazio erroldaren emaitzen erabileren aniztasuna.

Legezko populazioak parte hartzen du Estatuak herriari funtzionamendurako ematen dion diru kopuru nagusiaren kalkuluan, Funtzionamendu Zuzkidura Orokorra (DGF). Alderdi horretaz gain, tokiko erakundeek interes handia dute dinamika demografikoan eta migrazio-fluxuen neurketan, lantokitatik bizitegiarako joan-etorrietan, adin-piramidean, langabezia-tasan edo iritsi berrien tasan.



établir des statistiques décrivant la population et les logements.

Des calculs pour parvenir aux résultats

Il faut savoir que les résultats de cette enquête 2024, certes exhaustifs car issus de l'enquête sur le terrain, ne seront pas utilisés pour déterminer la population d'Ixassou en 2024 mais serviront de calcul pour établir la population des prochaines années. Il faut toujours compter avec un décalage entre la réalisation d'une enquête et sa prise en compte pour la population légale.

Multiplicité des utilisations des résultats du recensement de la population.

La population légale intervient dans le calcul de la principale dotation que verse l'Etat à la commune pour son fonctionnement, la Dotation Globale de Fonctionnement (DGF).

Outre cet aspect, les collectivités locales sont grandement intéressées par la dynamique démographique et la mesure des flux migratoires, des déplacements domicile-travail, la pyramide des âges, le taux de chômage ou le taux de nouveaux arrivants.

Energia aurrezteko politika herrian Politique d'économies d'énergie dans la commune

Argiteria publikoa

Gaueko argiztapenaren iraupenaren murrizteko politika honen helburua, aitzinkontu aurrezteko da, baina baita ere gaueko bioaniztasuna bultzatzea eta energia xahutzea murriztea.

2021ean, argiteria publikoaren itzaltze ordua 1:00etatik 23:00etara murriztu dugu. 2022an, argiztapen denbora berriz murriztera joan gara, 22:00ak arte eramanez.

Eraitza egokia izan da hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala:

Urtean 50.225 kw aurreztu dira. Kw-ko 0,24 €-ko kostuarekin, urtean 12 054 € aurrezten ditugu, eta horri esker, zati batean ordaintzen dugu argi zaharren ordez LED argiak ezartzea.


Arrangura bat sortu zaigu sistema honekin: Plazan edo Sanokin animazioak daudenean, argiak itzaliak dira inguruan aparkatuak diren autoetara heltzeko. Egoera hori arintzeko, 2024ko urtarilean kontagailu berezi bat ezarri dugu herriko etxetik kudeatzen duguna plazan, pilotalekuaren eta aparkalekuaren argiztapena Urzumuko bidearendako 24 ordu arte luzatzeko aukera ematen duena, ekitaldiak edo ikusgarriak direnean.

L'éclairage public

L'objectif de cette politique de réduction de la durée de l'éclairage nocturne est bien sûr de faire des économies budgétaires mais aussi de favoriser la biodiversité nocturne et réduire le gaspillage énergétique.

En 2021 nous avons ramené l'horaire d'extinction de l'éclairage public de 1h à 23h. En 2022, nous avons procédé à une nouvelle diminution du temps d'éclairage en le ramenant à 22h.

Le résultat a été de suite probant comme le montre le graphique suivant :



Une économie annuelle de 50 225 kw a été réalisée. Avec un coût de 0,24€ le kw, nous réalisons une économie de 12 054€/an qui nous permet de financer en partie le remplacement des anciens éclairages par des ampoules LED.


Un désagrément nous est apparu avec ces changements horaires : lorsqu'il y a des animations au fronton ou à Sanoki, les lumières sont éteintes pour rejoindre les voitures garées à proximité. Pour pallier à cet état de fait nous avons installé en janvier 2024 un compteur spécifique à la place qui est piloté de la mairie et qui permet de prolonger l'éclairage du fronton et du parking vers Urzumuko bidea jusqu'à minuit, lorsqu'il y a des manifestations ou des spectacles.

Argindarra herriko etxean

2022ko otsailean, 6kw-ko instalazio fotovoltaiko bat instalatu ginuen herriko etxearen beharretarako. Herriko etxea batez ere egunean zehar aktibatzen delarik, bere ordutegiak instalazioaren ekoizpenari dagozkionak dira:

L'électricité à la mairie

En février 2022, nous avons fait poser une installation photovoltaïque de 6kw pour les besoins de la mairie. La mairie étant active surtout pendant la journée, ces horaires correspondent à ceux de la production de l'installation :



Ekonomia 7475 KWkoa da, hau da, urtean 1794 €-ko aitzinkontu aurreztua, eta Enedisi itzuli zaion kontsumitu gabeko elektrizitate berdea gehitu behar zaio: 290 € 2023an, 7MW/H ekoiztuak izan dira eta 2,9MW/H salduak

Oro har, argiteria publikoan eta herriko etxean elektrizitate kontsumoa murriztearen eta herriko etxearen ekoizpenaren artean, 41 tona inguru murrizten dugu gure CO2 ekoizpena.

L'économie réalisée est de 7475kw soit une économie budgétaire de 1794€/an auxquels s'ajoutent l'électricité verte non consommée qui est revendue à Enedis, soit : 290€

En 2023, 7mw ont été produits et 2,9mw revendus

Globalement entre la réduction de consommation d'électricité cumulée en éclairage public et mairie et la production des panneaux de la mairie, nous réduisons notre production de CO2 de 41 tonnes environ.

Demokrazia parte hartzailea hitzetarik obretarat La démocratie participative à l'œuvre



Itsasuko Herriko Etxeak, 2024rako, parte hartze hitzarmen baten plantan ezartzea nahi du, herriko etxearen gibelean den parkearen antolaketa proiektuaren inguruan.

Dinamika bat plantan ezarri nahi genuke herriko biztanleendako, laster zozketatuak izanen direnak, eta, horrela, proiektu horren inguruan urrats kolektibo bat sortu.

Moldaketa hau Ibai Etcheverria itsasuar gaztearen estudio bukaerako obraburua, "zurgin lagun" titulurako hautagaia, barne hartuz egin beharko litzateke.

La mairie d'Itsasu souhaite organiser pour cette année 2024, la mise en place d'une concertation participative autour du projet d'aménagement du parc situé derrière la mairie.

L'idée serait de mettre en place une dynamique en mettant à contribution les habitants du village, prochainement tirés au sort et créer ainsi une démarche collective autour de ce projet .

Cet aménagement devrait être conçu en intégrant le chef d'œuvre de fin d'étude (de type kiosque) du jeune itsasuar Ibai Etcheverria, candidat au titre de « compagnon charpentier ».

OPAH : Berritze obrak behar dituzten bizitegientzat Pour les logements qui ont besoin de travaux

Itsasuren hautagaia beste herri batzuen bezala atxikia izan zen joan den urtean OPAH bizitegi pribatuen hobekuntza programa batean.

2023ko abendoan eta aurtengo urtarrilean, inkesta batek bildu ditu herritarren bizitegi berritze beharrordak.

Inkestaren emaitzak ez dira oraino agertuak izan, eta hauen arabera herriak jakinen du laster gelditzen den OPAH programa horren laguntza tekniko eta ekonomikoaren menturan.

Zer nahi dela, herriko etxea mobilizatuko da bizitegi pribatuen jabeak gidatzeko bizitegi berritzearen baldintza hoberenei buruz, bizitegi horik erabilgarri izateko, hotz beroetarik ongi gerizatuak izateko edo heldugarritasuna bermatzeko

Itxassou avait été retenue avec d'autres communes pour bénéficier d'un programme d'amélioration de l'habitat.

Une enquête a permis l'expression des besoins de nombreux itsasuar sur les mois de décembre et début janvier.

Les résultats de l'enquête n'ont pas encore été restitués et la commune saura prochainement si elle reste inscrite dans le programme d'accompagnement technique et financier de l'OPAH.

Dans tous les cas, la mairie se mobilisera pour permettre aux propriétaires privés de bénéficier des meilleures conditions de réhabilitation de leurs logements en mal de travaux d'habitabilité, d'isolation ou d'accessibilité.



Opération Programmée
d'Amélioration de
l'Habitat



Bihotzekoak artatzeko desfibrilagailuak

Défibrillateurs pour répondre aux urgences

Herriko etxeak desfibrilagailu automatikoak erosi ditu, laster herriko eraikinetan ezarriko direnak.

Kanpoko Desfibrilagailu Automatizatua (DAE) mediku dispositibo bat da, bihotz-gelditzeen biktimak suspertzen laguntzen dituena. Osasun larrialdi kasuan, huna nun aurkituko dituzuen desfibrilagailuak :

- 409 Karrika nagusia : kanpoaldea herriko etxea/posta (ataria) ;
- 911 Karrika nagusia : Sanoki kanpoaldea (komunak) ;
- 756 Elizako bidea : herriko haurtzaindegia ;
- 19 Balakiko errebidea : Balaki barnealdea (obren ondotik) ;
- 124 Xilarreneko bidea: barnealdea Goxoki eraikina/AEK

"Mugikorra" izeneko beste desfibrilagailu automatiko bat ere herriko etxean atxikia izanen da, bereziki kirol ekitaldiak antolatzen dituzten elkarten esku jartzeko.

Jakin ezazu pertsona orok duela DAE bat erabiltzeko ahalmena. Ahots laguntza baten bidez, desfibrilagailuaren erabiltzailea urratsez urrats gidatua da, bihotz-masajetik elektrodoak ezartzearaino. Desfibrilagailuak egiten du diagnostikoa, eta erabakitzen du estropezu egin behar denez.

Beraz, ezinbestekoa da edozein pertsonak, bihotz-gelditze baten lekuko, "biziraupen katea" abiaraztea, biktimei bizirauteko aukerarik onenak ematen dizkieten 4 katebegiez osatua.

Espero dezagun, hala ere, inoiz erabili behar ez izatea.

La mairie a fait l'acquisition de défibrillateurs automatiques qui seront prochainement installés sur différents bâtiments communaux.

Un Défibrillateur Automatisé Externe (DAE) est un **dispositif médical qui aide à la réanimation de victimes d'arrêt cardiaque**. En cas d'urgence médicale, voici les différents lieux où vous pourrez trouver ce type de matériel :



409 Karrika nagusia : extérieur mairie/poste (porche) ;

911 Karrika nagusia : extérieur Sanoki (sanitaires) ;

756 Elizako bidea : extérieur garderie

19 Balakiko errebidea : intérieur Trinquet Balaki (installation après les travaux) ;

124 Xilarreneko bidea : intérieur bâtiment Goxoki / AEK

Un autre défibrillateur automatique dit « mobile » sera également conservé en mairie pour être mis à la disposition des associations qui organisent notamment des événements sportifs.

Sachez que toute personne est habilitée à utiliser un DAE. Grâce à une assistance vocale, l'utilisateur du défibrillateur est guidé pas à pas, du massage cardiaque au placement des électrodes. C'est le défibrillateur qui fait le diagnostic et décide de la nécessité de choquer ou pas.

Il est donc indispensable que toute personne, témoin d'un arrêt cardiaque, initie la « chaîne de survie » formée des 4 maillons qui procurent aux victimes les meilleures chances de survie.

Espérons toutefois ne jamais avoir à les utiliser.



Beren lanetik bizi nahi dute laborariak **Les paysans veulent pouvoir vivre de leur travail**

2022ko idortek ondorio zuzen bezala izan zuen etxaldetan kabalen hazteko erosi behar ziren bihiki eta belarkiak ainitz eta iraunkorki prezioz emendatu zirela.

Alderantziz, 2023ko primadera eta udak euritsuak izan dira eta ez da errega izan belarkien idortzea eta biltzea. Ahantzi gabe 2023ko ekainaren 20eko harri erauntsi bortitza, pentzeak taloa bezala etzan zituena, arto alorrak xehatu zituena eta asko biper edo baratzeakari ekoizleen uztak suntsitu zituena.

2023ko udazkenean, gaitz berri batek jo ditu gure eskualdeko behi haztegiak.

Azkenik, duela aste guti altxatu da laborariaren kexu mogimendu zabal bat, gure lurraldeak eta gure hiriak harrotu dituena.

Protestak herri sargietako panelen gainazpikotzearekin hasi ziren, eta FDSEA/JAK antolatu zituen bide eta autobide tratatzeekin. Mobilizapena laster hedatu zen ELB laborari sindikatak ere portu bide tratatze eta okupazio ekintzetara lehiatu baitzen.

Batzu besten eskakizunek salatzen zituzten lan sarien murriztea, mundu mailako merkatu liberalaren ondorio kaltegarriak, baita laborariak eta etxaldeak itotzen dituen papertza administratiboak.

Laborantzako sindikatak adosten ziren menturaz lekuan leku eskakizun eta salaketa horietan. Funtsean, gure herrietako laborariaren egunerokoak aski berdintsuak dira etxalde batetik besterak. Aldiz, Frantzia ala Europa mailan, norabide ezberdinak agertzen dituzte laborari sindikatek. Batzuek mundua hazi behar dela uste dute eta hortarako antolatu behar dela laborantza saila, bereziki lehenetsiz ekoizpenen esportazioa ; bestek helburu nagusietan dute laborari ainitz behar dela lurralde bizi bizien sustatzeko, eta hurbilez hurbileko janari eskakizunari ihardesteko.

Euskal Herriak badu oraindik laborari instalatze maila hoberenetakoa, etxaldeak neurri ttipikoak izana gatik.

Lurrari atxikimendua eta afizioz laborantzan engaiatzea ez dira nahikoak izanen gure herrietan laborantza emankor eta sendo baten begiratzeko, beharko dira sustengu tekniko eta ekonomiko bizkorak aldean diren ekologiko, ekonomiko eta giza erronkei buru egiteko.



Action de Blocage des agriculteurs au port de Boucau



Action de blocage par les agriculteurs

La sécheresse de 2022 avait eu pour effet d'augmenter de façon conséquente et durable le prix des céréales et des fourrages dont ont besoin les éleveurs pour nourrir leurs troupeaux.

A l'inverse, le printemps et l'été 2023 ont été pluvieux et ont rendu difficile le séchage et la récolte des fourrages. Sans oublier l'épisode de grêle dévastatrice du 20 juin 2023 qui a particulièrement touché les cultures de maïs et anéanti les productions de maraîchage et de piment d'Espelette.

A l'automne 2023, c'est une nouvelle maladie qui est apparue dans les élevages de vaches de nos régions.

Enfin, sur ces dernières semaines, c'est un vaste mouvement de colère des agriculteurs qui a concerné nos campagnes et nos villes.

La contestation a sans doute été amorcée localement par l'action des panneaux de signalisation retournés et les premiers blocages de routes et d'autoroutes qu'a initié le syndicat agricole FDSEA/JA.

La mobilisation a rapidement fait tâche d'huile puisque le syndicat ELB s'est aussi mobilisé sur plusieurs actions de blocages et d'occupations.

Les revendications principales des uns et des autres portaient sur les revenus agricoles en berne, sur les conséquences néfastes pour l'agriculture d'un système de marché libéral et mondialisé, ainsi que sur la charge administrative croissante qui asphyxie les paysans et les fermes.

Les syndicats agricoles se sont sans doute accordés localement sur quelques points de convergence. D'ailleurs, les pratiques quotidiennes des paysans de nos villages sont globalement assez semblables. Par contre, les options de développement à l'échelle nationale ou européenne sont largement divergentes : les uns se donnant pour vocation de nourrir le monde, prônant le productivisme et visent les marchés à l'exportation. Les autres soutiennent des objectifs de paysans nombreux sur des campagnes vivantes, pour répondre en priorité aux besoins des habitants en proximité.

Le Pays Basque connaît un taux d'installation agricole encore des plus élevés, même si la taille des fermes reste modeste.

L'attachement à la terre et la passion ne suffiront certainement pas à maintenir une agriculture vivante sur nos villages, si l'accompagnement technique et financier n'est pas à la hauteur des enjeux écologiques, économiques et humains.

Kalte larriak kabaletan MHE gaitz berriarekin // Nouvelle maladie MHE qui fait des dégâts dans les élevages

Gure eskualdean, dakigunaz, gaitz berri hunek behiak ditu gehienik hunki 2023ko udaz geroztik.

Itsasun eta Euskal Herriko lurralde guzian, behi saldo gehienak gaitz hunek jo ditu guti aski : Kabala sendoak laster mehatu dira eta kabala ahulenak batzuetan hil ere egin dira.

Gaitzak izan ditu ondorio maltzurragoak : esne kantitate jaustea, ilortzeak edo ugalketaren nahasteak.

Herri aldizkari hau bururatzin dugunean, prefeturak helarazi dituen lehen laguntza neurriak jakiten dira. Alde batetik, marexal gastuak eta hil diren kabalaren sariak neurri batean ordainduak izan litezke, eta bestalde, gaitzak larriki hunki dituen etxaldeei dirua prestatzen ahalko zaie.

La maladie concerne particulièrement les bovins depuis l'été 2023.

A Itxassou et ailleurs sur le territoire basque, la plupart des élevages sont touchés à des degrés divers : amaigrissement de vaches saines et jusqu'à des mortalités des bêtes adultes les plus vulnérables. Mais également d'autres conséquences moins évidentes mais tout aussi impactantes : pertes de production laitière, avortements, anomalies de reproduction.

Au moment de boucler ce bulletin, les premières propositions de prise en charge arrivent de la préfecture : un dispositif sanitaire et un fonds d'urgence sont débloqués. Le premier prendrait en charge l'essentiel des frais vétérinaires et les mortalités. Le second vient proposer des soutiens de la trésorerie.

La demande d'indemnisation est accessible sur la plateforme "Démarches simplifiées" à l'adresse ci-dessous :

<https://www.demarches-simplifiees.fr/commencer/mhe-frais-veterinaires-mortalites>



Compteur d'eau vert pour les champs// Uraren kontagailu berdeak etxaldentzat

Uraren gaia arrangura nagusi bat bilakatzen da Euskal Herrian, bereziki 2022ko idorte zakar hartarik landa.

CAPB Hiri Elkargoak izanki uraren gaitasuna, delibero garrantzitsu bat hartu du 2023ko uztailan, erabaki duelarik behar zirela elgarretarik hurbildu Iparralde huntan ginituen 547 ur prezioak.

Ekintza bereziak deliberatu dira ordea 2023ko abendoan, CAPBren ganik, laborantza eta hazkuntzak baliatzen dituzten uraren prezioaren fagoretan :

Erabakia izan da uraren prezio berezi bat laborantzak 2024an baliatuko duen urarentzat, eta ondoko urteentzat gogoeta barnatuko da.

Ur kontagailu « berdeak » eskainiko dira laborariei berexi ahal izan dezaten laborantzako ura beren bizitegiko uretik, laborantzako ur prezio apalagoaz baliatzeko. Kontagailutik barnekaldeko despendioak aldiz laborariaren gain geldituko dira.

La question de la ressource en eau est devenue un sujet d'actualité tout particulièrement depuis la dernière période de sécheresse de l'été 2022.

La CAPB qui détient la compétence « eau » a délibéré en juillet 2023 pour une politique d'harmonisation des tarifs de l'eau potable sur le territoire Pays Basque, qui hérite de 547 tarifs différents de l'eau distribuée par le réseau public.

Des actions spécifiques concernant l'eau consommée par l'agriculture et l'élevage vont bénéficier de considérations particulières :

- Un tarif spécifique de l'eau à usage agricole a déjà été délibéré par la CAPB en décembre 2023 pour les consommations de 2024 et sera mis à la réflexion pour les années ultérieures.

- Des compteurs « verts » seront gracieusement fournis aux agriculteurs pour pouvoir distinguer l'eau à usage privé et l'eau à usage agricole. Les coûts de canalisations supplémentaires après compteur seront à charge des agriculteurs.



Zakur kk / Déjection canine

Zakur jabe guziek baitezpadakoa dute egokia zaien moduan beren animaliaren kaken biltzea herriko eremu publiko partean edo guzian. Oroitarazi nahi dugu potsa bereziak badirela hortarako ezarriak Herriko Etxe gibeletako parkean.

Tout propriétaire ou possesseur de chien est tenu de procéder par tout moyen approprié au ramassage des déjections canines sur toute ou partie du domaine public communal. Nous vous rappelons que des sacs poubelles sont mis à disposition au niveau du parc derrière la Mairie.

Itsasuko gerezia : aho batez lehen baimena sormarkarentzat

Xapata elkarteko Maryse Cachenaut lehendakariak publikoan aurkeztu du berriki euskal irratietan eta Laborantza Ganbarako urtarileko biltzarrean Itsasuko gereziaren sormarka dozierraren aintzinapena.

2023ko urrian igorria izan zaio ofizialki Pariseko INAO egiturari Itsasuko gereziaren sormarka eskakizunaren dozierra.

Jazko azaroan berean, INAOko batzorde iraunkorreko kide guziek aho batez onartu zuten sormarka eskakizun hau : dozierraren ikertzeak hasi behar luke eta INAOko ikuskari batzorde batek agertu behar luke gure herrialderat 2024ko primaderan.

Xapata elkarteak du eskua sormarka eskakizun hortan. 1994an sortu zen Xapata bi helburu nagusiekin : lehengo gerezitze zaharren zaintzea, eta bultzatzea lekuan lekuko gerezi ekoizpenak eta erabilpenak.

Itsasuko gereziaren sormarkak mugatuko luke bere sormarkaren eremua Lapurdi Barnealdeko eta Baxe Nafarroako 66 herrieri.

Maryse-k adierazten du Itsasuko Gerezia berritz izan litekeela mozkin bide preziagarri bat gure eskualdeko etxaldeentzat, lur eremu gutti eskatzen baitu, eta ongi lotzen ahal baita hazkuntzari emanak diren etxalde ttipietan.



Cerise d'Itxassou : un premier avis favorable pour l'appellation d'origine



La présidente Maryse Cachenaut de l'association Xapata a récemment présenté sur les radios locales et à l'assemblée de la chambre d'agriculture du Pays Basque l'avancée du projet d'appellation d'origine de la cerise d'Itxassou.

Le dossier de demande d'appellation pour cerise d'Itxassou-Itsasuko gerezia a officiellement été déposé en octobre 2023 auprès de l'INAO à Paris.

Un avis favorable à l'unanimité des présents a été accordé à la demande en novembre 2023 par la commission permanente de l'INAO : l'instruction du dossier devrait être entamée et une commission d'enquête composée de membres de l'INAO venir sur place au printemps 2024.

C'est l'association Xapata qui est à l'initiative de cet engagement dans la demande d'AOP. Xapata avait vu le jour en 1994 avec le double objectif de sauvegarder les variétés anciennes et de relancer l'activité économique de production et de valorisation de ces variétés locales.

Le projet d'appellation d'origine Itsasuko gerezia définirait une zone étendue à 66 communes du Labourd Est et de la Basse Navarre coteaux et montagne.

Maryse Cachenaut inscrit dans les priorités d'actions la volonté d'aller jusqu'à l'obtention de l'appellation d'origine Cerise

d'Itxassou- Itsasuko gerezia, au même titre que le développement de la production de ce fruit emblématique de notre commune. La cerise d'Itxassou peut devenir à nouveau une opportunité économique qui sollicite peu de foncier, tout en présentant un bon complément de revenu pour les petites fermes d'élevage.

Erlezaintza ikasten / Pour apprendre l'apiculture



Cette année encore, notre association propose des cours d'initiation à l'apiculture. Ouverts à tous et toutes, vous pourrez découvrir tous les travaux

du rucher, tout le long de la saison apicole de mars à octobre. Ces cours se dérouleront à Itxassou, un samedi après midi par mois et le prix est de 150 euros

pour l'ensemble des cours.

Nous proposerons aussi la vente d'essaims et de reines.

Cette année nous participons à une campagne visant à piéger massivement les frelons asiatiques sur l'ensemble du Pays Basque. Rappelons que cette espèce invasive produit de gros dégâts chez les apiculteurs mais aussi dans nos vergers.

Contact : erlebeltza64@gmail.com

Aurten gure elkarteak eskaintzen ditu erlegintzan hasiberrientzat ikastaldiak. Denei idekiak. Erlezainaren lan guziak ikusiko dira, erle sasoinaren luzaroen, martxotik urriraino. Itsasun egiten dira hilabeteen behineko ikasgaiak, urteko 150€ ko sariaren truke .

Izanen dira salgai erreginak eta erlauntzak.

Aurten parte hartzen dugu listor harrapatzeo kanpana zabal batean, Euskal Herri osoan hedatzen dena. Oroitu behar da makur handiak eragiten dituela listor ausart horrek bereziki erlegintzan baita fruitu landare eta zuhaitz askotan.

Listor asiaticoari jo ta ke

La guerre aux frelons asiatiques

2023ko azaroan, 80 pertsona inguru kolektibo batean bildu dira Itsasun, gure lurraldean asiatar liztorren emendatzearen aurka borrokatzeko tresnak plantan ezartzeko. Zinezko izurritea profesional askorentzat (erlezainak, eskoltariak, mahastizainak, arboristak...), baina baita partikularrentzat ere, beren fruitu-arbolak intsektuz estaliak ikusten baitituzte, beraz, premiazkoa iduritzen zen ekintza komunaren antolatzea eta gogoetzea. Azken hilabeteetan, lan taldeak hasi dira lanean, hainbat arlotan:

- Publiko zabalari zuzendutako euskarriak editatzeko komunikazioak, udaletxeen, denden eta hainbat hedabideren bidez.
- Tranpak: tranpa erosketa masiboak, lurralde osoan dohainik banatzeko
- Habi kokapena: habiak aurkitzeko aukera ematen duten teknologia berrien azterketak.
- Habi suntsiketak: jende-sare bat ezartzea, habiak suntsitzeko.
- Aplikazioa: habiak herri batean non diren jakinarazteko tresna baten garapena

Euskal Herriko hainbat erakunderekin bilerak egin dira jadanik, gure lurraldea Liztor asiaticoaren aurkako borrokari buruzko gune pilotu bilakatzeo datozen urteetan. Ez izan dudarik kolektiboarekin harremanetan jartzeko, informazio gehiagorako: collectif.luttefrelonasiatique@gmail.com

Edonor izan daiteke borroka horren protagonista plastikozko botilekin tranpak jarriz, ziropa bat eta alkohol bat barnean ezarriz (urte guzian).

Zure etxean liztor asiatico habia badela ikusten baduzu, ez izan dudarik Itsasuko Herriko Etxeko idazkaritzarekin harremanetan jartzeko, profesional aditu batek suntsituko baitu.

En novembre 2023 un collectif d'environ 80 personnes s'est réuni à Itxassou pour mettre en place des outils de

lutte contre la prolifération du frelon asiatique sur notre territoire. Véritable

fléau pour de nombreux professionnels (apiculteurs, élagueurs, viticulteurs, arboristes ...) mais aussi pour les particuliers qui voient leurs arbres fruitiers couverts d'insectes, il apparaît donc urgent de s'organiser et de réfléchir à des actions communes. Depuis plusieurs mois, des commissions de bénévoles travaillent sur différents axes :

- Communications pour éditer des supports destinés au grand public à travers les mairies, magasins et divers médias.
- Piégeages : achats massifs de pièges pour distribuer gratuitement sur l'ensemble du territoire
- Localisation des nids : études des nouvelles technologies pouvant permettre de repérer les nids .
- Destructions de nids : mise en place d'un réseau de personnes équipées pour détruire les nids chez les particuliers comme sur le domaine public
- Application : développement d'un outil pour signaler l'emplacement des nids dans une commune

Des rencontres avec différentes institutions du pays basque ont déjà eu lieu pour que notre territoire devienne un site pilote de lutte contre le frelon asiatique pour les prochaines années. N'hésitez pas à contacter le collectif pour de plus amples informations. collectif.luttefrelonasiatique@gmail.com

Chacun à son niveau peut être acteur de cette lutte en installant (toute l'année) des pièges dans des bouteilles en plastique contenant un sirop mélangé à l'alcool comme appât. Si vous constatez la présence de nids de frelons chez vous, n'hésitez pas à contacter le secrétariat de la mairie d'Itxassou qui fera procéder à sa destruction par un professionnel compétent.





Herrien lehertzaile baino gehiago bateratzaile Elkargoa

Erranmoldea aski ezaguna da, eta herri askotako hautetsiek besterik ez dute ahoan : « ez da gehiago deusik deliberatzen herrietan ».

Itsasuko hautetsiek ez dute baitezpada osoki baiesten ikuspegi hori, nahiz onartzen duten herrien diru ahalak murriztuz doatzila. Sinetsi nahi dute oraino Euskal Hiri Elkargoak herrien lehertzaile baino gehiago bateratzaile izan behar duela.

Azken lau hamarketako ixtorioak antolatu ditu herriak elgarrekin eta hurbilenean.

Gure lurraldearentzat, Errobi SIVOM a sortu zen 1983an, elkartzen zituela Luhuso, Kanbo, Ezpeleta, Zuraide, Ainhua eta Itsasu.

Errobi SIVOM a 2006an bihurtu zen Errobi Herri Elkargoa geroztik ezagutzen dugun Errobi poloko 11 herriak bateratzen zituela : Luhuso, Kanbo, Ezpeleta, Zuraide, Larresoro, Haltsu, Jatsu, Uztaritze, Basusarri eta Arrangoitze eta Itsasu.

Herrien elgarrekilako antolaketak gaitasun zenbait eramaiteko ahalak ematen zituen. Besteak beste, edateko uraren eta ur zikinen kudeaketa, hondarinen kudeaketa...baita lurraldean lekuan lekuko ekonomiaren kudeaketa. Huni esker zabaldu zen adibidez Errobi lantegi zelaia Alzuietako etxaldearen eremuan, Garazi- Baiona eta Hazparne-Lohitzune bide nagusien erdigunean.

Euskal Herriko hautetsiek eta gizarte zibil antolatua ez zuten errexki irentsi lurralde kolektibitate baten ukapena Pariseko jaunen ganik. Bateratuak segitu zuten lehen aldikotz egitura administratibo bakar batean biltzeko Iparraldeko herri guziaz : CAPB deituko den EPCI bat sortu zen 2017an.

Badu orain 7 urte CAPBko Hiri Elkargoak bereganatzen dituela hainbat gaitasun berri, aintzineko herri elkargoek baino aintz gehiago. Probetxu guziaz beharko ginuke lurralde osoan antolatzen ikusten bizitegien politika, garraioena, urarena, kulturena, elikadurarena, laborantzarena, etabar.... Egituratze berriak erabaki dezan etorkizunari buruzko proiektu adostu eta ausart bat, lurralde bakotxari ikuskizun argia ematen diona.

Une agglomération fédératrice et non pas prédatrice



Pôle Errobi CAPB

L'expression est bien connue et les élus de certaines communes la répètent à l'envie : « on ne décide plus de rien sur nos communes ».

Le sentiment n'est pas intégralement partagé par les élus Herriari d'Ixassou qui constatent forcément la diminution des moyens financiers attribués aux communes, mais restent convaincus que la CAPB peut être fédératrice et non prédatrice des communes.

L'histoire des quatre dernières décennies a organisé les communes ensemble et en proximité.

Pour notre secteur, c'était d'abord un SIVOM (Syndicat à Vocations Multiples) à partir de 1983. Ce SIVOM ERROBI intégrait Louhossoa, Cambo, Espelette, Souraide, Ainhua et Ixassou.

Le SIVOM ERROBI devenait en 2006 la Communauté de Communes Errobi qui regroupait les 11 villages du pôle Errobi que nous connaissons aujourd'hui : Louhossoa, Cambo, Souraide, Espelette, Larressore, Halsou, Jatxou, Ustaritz, Bassussary, Arcangues et Ixassou.

L'organisation des communes entre elles permettaient de porter ensemble des compétences aussi diverses que la gestion de l'eau, des déchets, de l'assainissement.... Mais aussi la prise en charge partagée de l'économie locale qui nous vaut la création sur Ixassou de la zone d'activités économiques Errobi sur le secteur d'Alzuïeta, à la croisée des axes routiers Hasparren-Saint Jean de Luz et Saint Jean Pied de Port-Bayonne.

Les élus et la société civile organisée du Pays Basque, qui n'avaient pas apprécié de se voir refuser du pouvoir parisien une collectivité territoriale, se mobilisent pour réunir enfin dans une même entité administrative l'ensemble des communes du Pays Basque : une EPCI de 158 communes qui verra le jour en 2017 et qui s'appellera CAPB : Communauté d'Agglomération Pays Basque.

Depuis maintenant 7 ans, la CAPB s'empare de compétences diverses, bien au-delà de celles portées auparavant par les diverses communautés de communes. Nous devrions avoir tout à gagner en décidant de mutualiser nos moyens pour organiser les politiques d'habitat, de transport, de gestion des eaux, de cultures, d'alimentation, d'agriculture etc..... Pour peu que la nouvelle organisation parvienne à écrire un projet d'avenir partagé et ambitieux qui donne de la perspective à chacun des territoires.

Nola egin bereizketa / Les consignes de tri

TOUS LES EMBALLAGES ET PAPIERS SE TRIENT !



Tri des déchets : ce qui a changé au 1^{er} janvier 2023

En vrac dans la poubelle jaune : tous les emballages ménagers et papiers, sacs et sachets en plastique, barquettes alimentaires, films alimentaires en plastique, pots de yaourt, tubes de mayonnaise et dentifrice, couvercles de pots et bocaux métalliques.....

En conteneurs dédiés : Les emballages en verre (bouteilles, pots, flacons, bocaux) resteront le seul matériau à part.

Konpostagailuak denentzat dohainik Nik ikasi dut bereizten Le compostage gratuit pour tous Un nouveau geste de tri

Bil ta Garbi sindikatak eta Hiri Elkargoak jakinarazi dute, 2024ko urtarrilaren lehenetik, bakarkako ala taldekako konpostagailuak dohainik bazirela lurraldeko herritar guzientzat.

Konpostagailuak aintzinetik erreserbatu behar dira webgunean : www.biltagarbi.fr

Bio-hondarkin guzien bereizketa AGECE legeak behartzen du.

Euskal Herriko biztanle bakotxari eskatzen zaio bereizketa indar bereziaren egitea, zikin ontziaren karga arintzeko, bio hondarkinak etxean berean konpostatzu.

Gaurregun, bazkari hondarrek, sukaldetako xurikin eta gainerateko hondarkin konpostagarriek zikinontzi beltzaren % 26 betetzen dute : 70 kilo urtean herritar bakotx, etxekotz etxeko baliatzen ahal direnak. Bada eginmolde bat baino gehiago : bakarkako konpostagailua, zizari konpostagailua, talde edo auzo konpostagailua....


La CAPB (Communauté d'Agglomération Pays Basque) et le syndicat Bil ta Garbi annoncent la mise à disposition de composteurs individuels pour l'ensemble des habitants du territoire, à compter du 1^{er} janvier 2024.

Les composteurs peuvent être commandés en se rendant sur le site www.biltagarbi.fr

Le tri à la source des biodéchets est imposé par la loi Anti-Gaspillage pour une économie circulaire (dite loi AGECE).

Chaque habitant du Pays Basque est invité à adopter un nouveau geste de tri en compostant ses biodéchets pour réduire le poids de sa poubelle d'ordures ménagères.

Aujourd'hui, les restes de repas, épluchures et autres produits de cuisine représentent encore 26% de la poubelle noire sur le territoire, soit 70kg/an et par habitant qui pourront être ainsi directement valorisés sur place en compost. Les formules sont diverses : le compostage individuel, le lombricompostage, le compostage collectif en pied d'immeuble avec ses voisins, le compostage de quartier....



Oihalkiek bigarren bizi bat merezi dute

Les textiles usagés méritent une seconde vie

Oihalki sobera gelditzen da oraino zikinontzi hori edo beltzean, bigarren bizi bat emaiten ahal ginioketelarik !

Zure jauntziak higatuak dira ? zure etxeko oihalak ez dituzu gehiago gustukoak ? eta oinetakoak antola ezinak ? ezarkitzu poltsa hetsi batean (30l) etxetik hurbileneko oihalkien ontzi egokian.

Kasu : ez nahas oihalki higatuak zikinontzi horietan aurdukitzen diren paper eta estalkiekin !

Zer ekarri behar den oihalki higatuen ontzirat ?

Bakarrik jauntzi, etxeko oihalki eta/ edo baliatzen ez diren oinetako pareak

Ekartzen direnak higatuak edo fundituak izan litezke

Baztertuak ez badira emanak izateko, berziklatuak izanen dira.

Zer ez den ekarri behar ?

Ez dira ekarri behar bustiak diren oihalkiak, ez eta ere garbiketa edo txintxuketa egiten erabiliak izan badira

Nola egin xintxo ?

Bildu oihalki garbi eta idorrek poltsa batean, higatuak izanik ere

Elgarri loturik ezarri oinetako pareak, ez daitezen bereizi poltsak idekitzean

Ongi hetsi poltsa (ainitz inarrosia izanen baita)

Handiegiak ez diren poltsak hautatu (50 pintaz azpikoak)

Ez du balio jauntzien eta oihalkien lisatzea



LES CONSIGNES À SUIVRE

Vous pouvez déposer dans les bornes textiles :

- Vos vêtements et votre linge de maison** propres et secs dans un sac fermé
- Vos chaussures** liées par paire et dans un sac fermé

Même usés, ils seront valorisés à plus de 99%

ATTENTION Ne déposez pas d'articles humides, ni souillés

Que deviennent vos dons ?

Vos vêtements ont de l'avenir : réparez-les, ou donnez-les !

Retrouvez la liste des bornes textiles sur le territoire : communaute-paysbasque.fr

ZURE EHUNEK, HIGATUAK IZANIK ERE, BIGARRIN BIZI BAT MEREZI DUTE !

Ehunen edukiontzietan utzi ditzakezu :

- Zure jauntziak eta etxeko oihalak
- Zure oinetakoak

Trop de textiles se retrouvent encore dans la poubelle jaune ou noire alors qu'on pourrait leur donner une seconde vie !

Vos vêtements sont usés ? Votre linge de maison plus à votre goût ? et vos chaussures irréparables ? ...

Déposez-les, dans un sac fermé (30L), dans la borne à textiles proche de chez vous !

Comment faire ?

Des Points d'Apport Volontaire de Textiles d'habillement, Linge de maison et Chaussures (TLC) usagés sont à votre disposition à proximité de chez vous.

Pour trouver le plus proche de votre domicile ou de votre lieu de travail, rendez-vous sur : Localiser le point d'apport volontaire le plus proche de chez vous (communaute-paysbasque.fr)

Attention : ne pas trier ses TLC avec les papiers et les emballages ménagers. Ils ne sont pas faits pour aller dans la poubelle jaune !

Qu'est-ce qu'on peut y déposer ?

Uniquement les vêtements, linges de maison et/ou chaussures (par paires) dont vous n'avez plus l'usage.

Les articles apportés peuvent être usés et abîmés. S'ils ne sont pas mis de côté pour être donnés, alors ils seront recyclés !

Qu'est-ce qu'on ne doit pas déposer ?

N'apportez pas les textiles ayant servi aux travaux ménagers ou au bricolage s'ils sont souillés par des produits chimiques, des graisses, de la peinture, etc... ou encore ceux qui sont mouillés.

Comment bien faire ?

Rassemblez les textiles propres et secs (même usés) dans un sac, Attachez les chaussures par paire (par les lacets ou avec un élastique) car ils risquent de se séparer à l'ouverture du sac, Fermez bien le sac (qui va subir beaucoup de manutention), Evitez les sacs trop volumineux (préférez ceux de moins de 50 litres) ;

Pas besoin de repasser les vêtements ou le linge.

Ur zikinen kontrola kanpana Campagne contrôle des stations d'assainissement individuel

Hiri elkargoak bere gaitasunetan du bakarkako etxen ur zikinen ibilmoldearen jarraipena, lege araudien arabera. Hortarako da Hiri Elkargoko langile bat pasatzen ari etxez etxe ur zikinen tratamendu sistemen kontrolatzen. Langile horrek erakutsiko du bere izenean duen ageri ofiziala.

Zer den kontrolatua ?

- Ikusi zertan diren ur zikinen hornikuntzak eta nola heltzeko gisan diren
- Ikusi ongi doazela ixurkin guziak
- Ikusi zenbat lohi den fozetan
- Eskatu regularki egin behar ziren foza husteen ageriak
- Ikusi, badirelarik, urin fozen mantenimenduak
- Txosten bat idatzi ur zikin tratatzeko antolamendu bakotxaz, indarrean den legediaren arabera.

Zoin diren urratsak ?

- Hitzordu bat igortzen du Hiri Elkargoko langileak, etxejabearentzat, hitzorduaren gibelatzeko ahalarekin
- Papertxo bat uzten etxean langileak ez badu nehor atxemaiten hitzorduan (66€ jabeak ez badu berririk emaiten, eta 198€ kontrola egitea tratatzen badu)
- Bigarren hitzordu bat igorria langilearen ganik postako bermearekin jabeak berririk ematen ez badu.
- Kontrola gastuaren faktura (198€) igorria kontrola txostena igorria den ordutik
- Kontrolaren ondorioak txostenak agerian ezarri badu ur zikinen tratamendu sistema ez dela pikoan :

Hiri Elkargoak jakinarazten dio jabeari behar dituela araudietan sartzeko obrak egin :

- Urte bat barne saltzeko asmoa balin badu
- Lau urte barne arriskurik balin bada jendeen osasunarentzat edo ingurumenaren larriki kutxatzearen aldetik



Contrôle des installations assainissement autonome

La CAPB (Communauté d'Agglomération Pays Basque) détient dans ses compétences la vérification du bon fonctionnement et du bon entretien des installations d'assainissement non collectif, conformément à la réglementation en vigueur. La campagne de contrôle est actuellement en cours sur Itxassou. Les agents de la CAPB prendront rendez-vous avec les propriétaires et se présenteront ensuite avec leur carte professionnelle nominative et officielle.

La nature des contrôles consiste à :

- Apprécier l'état des ouvrages et leur accessibilité;
- Contrôler le bon écoulement des effluents;
- Vérifier le niveau des boues dans les fosses;
- Vérifier la réalisation périodique des vidanges;
- Vérifier, le cas échéant, l'entretien des bacs à graisse;
- Rédiger un rapport sur l'état de l'installation au vu de la réglementation en vigueur.

Les étapes :

- Convocation pour rendez vous, avec la possibilité laissée à l'utilisateur de reporter le rendez-vous;
- Papillon avis de passage si absence au rendez-vous (Sanction de 66€ si non réponse de l'utilisateur et sanction jusqu'à 198€ si obstacle au contrôle);
- Deuxième convocation avec lettre et accusé de réception si pas de suite donnée par le propriétaire;
- Facturation du coût de contrôle (198€) faite à l'utilisateur dès lors que le rapport de contrôle signé a été envoyé.

Les suites du contrôle si le rapport atteste la non-conformité du dispositif d'assainissement individuel :

La CAPB notifie au propriétaire l'obligation de réaliser les travaux de mise aux normes :

- Sous un an en cas de vente
- Sous quatre ans en cas de danger pour la santé des personnes et de risque avéré de pollution de l'environnement.

Eskola publikoa : Birziklatze tailerrak eta zirko jokoetan trebatzea

Azken hilabete gutan, eskola publikoko haurrek egutegi bete izan dute egunez eguneko lan sailtarik harat, frantsesean, euskaraz edo matematiketan.

Alabainan, Bil eta Garbi egitura hurbildu da lehen mailako ikasleentzat hondarkinen berexketaren aipatzeko.

Aipagarrietan, paper berziklatua ekoiztu dute ikasleek beren eskuz. Proiektua ikastaldi bat baino gehiagotan egin da, eta ikasle handienentzat bururatu da CANOPIA ren bisita batekin otsailaren 16an.

Bestalde, Oreka zirko eskolak proposatu ditu ikasgaiak eskolako gela guzietan, haurrei ezagutarazteko eskuketari jokoak, oreka jokoak eta akrobata jokoak....

Proiektua bururatu da Sanoki gelan maiatzaren 17an haurrek eskainiko duten ikusgarriarekin. Ba liteke zirko ikusgarri baten ikusterat joateko mentura ere maiatz hondarrean Baionarat.



Atelier de cirque

Ikasleek Olentzero ospatu dute eskolan burrasoei eskaini duten ikusgarri batekin. Liburu bana ukan dute opari.

Ecole publique : Ateliers recyclage et découverte des jeux du cirque

Ces derniers mois, les élèves de l'école publique ont eu un emploi du temps chargé en plus du travail quotidien en français, en basque, en mathématiques.

En effet, l'association Bil Ta Garbi est intervenue auprès des élèves de l'élémentaire afin de traiter du tri des déchets. Les élèves ont notamment créé eux-mêmes du papier recyclé !

Le projet qui s'est fait sur plusieurs séances se conclue, pour les plus grands, par une visite du site de CANOPIA à Bayonne le vendredi 16 février.

De la même manière, l'école de cirque Oreka est intervenue dans toutes les classes de l'école afin de faire découvrir aux enfants le jonglage, l'équilibre, les acrobaties.

Le projet se terminera sur une représentation des élèves le vendredi 17 mai à la salle Sanoki. Nous espérons également pouvoir aller voir un spectacle de cirque à Bayonne fin mai !

Les élèves ont fêté Noël à l'école en présentant un spectacle aux parents présents. Un livre leur a été offert en cadeau !



Atelier de création de papier recyclé

Arrokagarai : oiloarekin zenbat gauza ikasteko! Une poule peut permettre de découvrir tant de choses!


Urtarriletik, Itsasuko ikastolako ikasleak oiloaren gaia lantzen ari dira.

Beharbada, harrituko zinateke animale hortaz ikas daiteken guziaz : badela 300 oilo arraza baino gehiago ; biziki entzumen fina dutela edo baita ere ingurune ezberdinetara molda daitezkeela ?

Gelan, ikasleak hezle ttipi bilakatu ziren eta 21 egunez xitagailu batean arroltzeak sartu zituzten. Arroltzeak egunero, bi alditan itzulikatu zituzten, ura zaindu eta xitoen bilakaera bere kuxkian obserbatu ahal izan zuten ilunpean, lanpa batekin. Harrigarria zen ikustea zoin fite formatzen ziren xitoak !

Burasoek ere esperientzia hortan lagundu gintuzten, asteazken eta asteburuetan, txandaka arroltzeen itzultzera jin baitziren.

Ikusiko beraz, istantean sortuko zaizkigun ume ttipi horiek !Ez da dudarik hurrek ongi zainduko dituztela beren xitoak !



Kukurukuuu, zer duk oilarra ?Buruan min-nork egin? Axeriak !

Depuis le mois de janvier, les élèves de l'ikastola d'Itsasu travaillent sur le thème de la poule.

Vous seriez peut-être étonnés de savoir qu'il existe plus de 300 races de poules; qu'elles ont une ouïe très fine ou encore qu'elles peuvent s'adapter à différents milieux ?

Les élèves se sont découverts éleveurs puisqu'ils ont surveillé dans une couveuse des œufs fécondés pendant 21 jours. Ils ont délicatement retourné les œufs tous les jours ; ont observé à la lampe l'évolution du poussin dans son œuf; et sont émerveillés devant l'éclosion des œufs.

Les parents ont participé à ce projet, car il fallait aussi s'occuper de cet élevage le mercredi et le week-end !



Arroltzea, 7. egunean



Xito sortu berriak

San Josep eskola : Ikasleak eskolako biziaren hobetzeaz arduradun / Des élèves responsables de l'amélioration de la vie à l'école



Arduradunak elkar lanean

Gure eskolako biziaren hobetzeko eta erreteko gelaka arduradunak hautatu ditugu. Badira 12 orotarát, bi mailaka, neska bat eta mutiko bat.

Urte hastapenean bozkatu ditugu kanpania aste baten ondotik. Arduradunak, gelako errepresentatzaileak dira, ikasleen eta erakasleen arteko lotura.

Arazo edo behar bat badelarik, gelan aipatzen dugu, ikasleek beren ideiak erraiten dituzte eta arduradunek idatziz labur-biltzen dituzte. Horren ondotik erakasleak eta arduradunak elkartzen dira haurren kontseiluan eta erabakiak elgarrekin hartzen dituzte.

Gure lehen lana izan zen jostalekuaren partekatzea, jostaldi goxoagoak pasatzeko eta denek lekua ukaiteko haien jokoen egiteko.

Bigarren lana izan da eskolako jostailuen inbentarioa egitea eta gero omentzerori zerrendatu dugu faltatzen zen materiala: pilotak, baloinak, sarea etb...

San Josepeko CM1 eta CM2 ko ikasleak.



Pour améliorer la vie de notre école, nous avons choisi des responsables de classes. Il y en a 12 au total, deux par niveau, une fille et un garçon.

Nous les avons choisis en début d'année scolaire, après une campagne d'une semaine.

Les responsables sont les représentants de la classe qui font le lien entre élèves et enseignants.

Dès qu'il y a un besoin ou une demande, nous en parlons en classe. Les élèves expriment leurs points de vue, et les responsables les résumant par écrit. Ensuite, enseignants et élèves se réunissent en conseil d'enfants et prennent ensemble des décisions.

Notre premier chantier avait porté sur la répartition de l'aire de jeu (la cour de l'école des primaires), pour passer des moments de récréation plus agréables, et pour permettre à tous d'avoir leur espace de jeu.

Le deuxième chantier a consisté à faire l'état des lieux des jouets, et à passer commande du matériel manquant à Omentzero : des pelotes, des ballons, des filets, etc...

Eskolaz kanpoko aisialdi proiektua abiatzen da // Le projet d'animation périscolaire pour très bientôt

Itsasuko hiru eskoletako ikasleentzat pentsatua den eskolaz kanpoko aisialdi proiektua itxura hartzen ari da.

Aste guziz, 3 eskoletako hurrek eskolaz kanpoko tailerretan parte hartzen ahalko dute, haurtzaindegiko ordutegietan, 17:00etatik 18:00etarat.

Abendu hastapenean Euskara Batzordeak 3 ikastetxeetako ordezkariak (zuzendariak eta guraso ordezkariak) eta herriko zombait kirol eta kultur eragile (Itsasuarrak, Arroka, Udaleku, Sarde Sardexka) gomiatu zituen, proiektuaren bideragarritasuna aurreikusteko eta helburu pedagogikoak aurkezteko.

Bilkura hunen ondotik, CPTik CM2ra arteko haurren burasoen interesa aztertzea adostu zen, baita disponibilitateen diagnostikoa egitea ere. Zentzu horretan proposatu ginuen abenduaren 23ra arte 3 eskoletako familiei zuzenduriko galdetegia.

Uda Leku elkartearen lankidetzari esker, neguko bakantzen ondotik, martxoaren 4an hasten ahalko dugu eskolaz kanpoko ekintza hauen proposamena. Herriko-etxearen babesarekin Udaleku-ko bi animatzaileek joko kooperatiboan tailerrak proposatuko dituzte astelehen eta astearte aratsetan.

Egunka talde bakoitza 28 hurrez osatua izanen da (hau da, 14 haur animatzaile bakoitzeko), astelehenetan CPTik CE2ra bitarteko hurrentzat eta astearteetan CM1 eta CM2 bitarteko hurrentzat idekia izanen delarik.

Jarduera hauek agorespace ondoan kokatua den herriko lurretan eginen dira, eguraldi euritsueta haurtzaindegiko gela erabilgarri izanen delarik.

Hiru ziklo antolatuko dira ikasturte bukaera arte:

-martxoaren 4tik apirilaren 12rat;

-apirilaren 29tik maiatzaren 31rat;

-ekainaren 3tik ekainaren 25erat.

Izen emateak herriko-etxean eginen dira ziklo osorako: ondoko egunetan mail bidez hedatuko dugu familieri doakien araberako informazioa.

Eskaintza haur guzien eskura egon dadin, haur bakoitzak ziklo bakar batean parte hartzen ahalko du.

2023/2024 ikasturte bukaerako esperimendazio fase hauetan herriko-etxeak ez du familieri diru-partaidetzarik eskatuko.



Le projet d'animation périscolaire concernant les élèves des trois écoles d'Itsasu suit son cours et prend forme.

A raison d'une fois par semaine, les enfants des 3 écoles pourront participer aux ateliers périscolaires, pendant les heures de garderie, entre 17h et 18h.

Début décembre, la Commission euskara a invité les représentants (directeur.trices et délégués des parents d'élèves) des 3 écoles ainsi que certains acteurs sportifs et culturels associatifs du village (Itsasuarrak, Arroka, Udaleku, sarde sardexka) afin de leur présenter le projet pédagogique et travailler ensemble sur sa faisabilité.

